


1 Txangoa: DONOSTIA – SAN SEBASTIAN

Udarako hiru hilabeteetan izan izan ezik (ekainaren 15etik Irailaren 15era) **Ondarreta** hondartzako pasealekuan autoa dohainik aparka dezakegu. Donostiako zentroan aparkatu nahi izanez gero autoa lurrazpiko parking batetan sartzea gomendatzen dizuegu. Nahi izanez gero ibilaldia Ondarretako hondartzatik has dezakegu, pasealeku honetan Eduardo Txillida eskultorearen **“Haizeen Orrazia”** obra aurkitzen da. Ondarretan funikularren estazio txikia dago eta **Igeldo mendi** tonterria igo eta jeisteko aukerra polita daukagu. Igeldoko tontorretik hiriko eta Kontxako badiako ikusmira zoragarriaz gozatzeko aukera izango dugu.

Loretopeko tunela gurutzatuz ibilaldia oinez jarrai dezakegu Kontxaruntz. Loretopea goitik Miramar Jauregitik edota itsasbehera badago hondartzatik gurutza dezakegu. Miramar Jauregia badia erdi erdian dago kokatua eta leku aparta da hiriko ikuspegi orokorra izateko. Kontxako pasealekuaren bukaeran **Alberdi-Ederreko** jardinen ondoren Donostiako Udaletxea (Kasino izandakoa) eta Boulebarra aurkituko dituzue. Ingurune honetako eraikinek Maria Kristina hotela eta Victoria Eugenia antzokiarekin batera kutsu erromantikoa ematen diote Donostiari. Hiriko zentroan gaudela **Urumea** ibaia gurutza dezakegu hiru zubietakoren bat erabiliz eta honela Frantziako pasealekua zeharkatu edota **Zurriolako** itsas bazterretik Sagües auzoraino irits gaitezke.

Parte Zaharrekoan Konstituzio Enparantza bisita dezakezue. Parte Zaharra Urgull mendiaren azpian eta kaiaren (**Aquqriuma** eta **Untzi Museoa**) artean aurkitzen da eta oinezkoen gune hau da hiriko atrakzio gunerik garrantzitsuenak. Ingurune honetan kokatzen dira jatetxe, taberna, denda eta monumentu historiko gehienak. (**San Telmo Museoa**, **San Bizente Eliza** eta **Santa Maria Basilika**). **Urgull mendiko** bidexketatik gora Motako Gaztelua oinez igotzeak pena merezi du. Bertan guztiz gomendagarria eta aipagarria **Donostiako Historiaren Etxea** da.



Donostiak euskal sukaldari eta goi mailako jatetxe ospetsuren hiria izateaz gain, beste hainbat gauza ezkeintzen dizkio bisitariari: hala nola, urte osoan zehar antolaturiko kultur, kirol eta aisia programazio zabala eta baita zine eta jazz jaialdi edota musika kontzertu garrantzitsu asko.

2 Txangoa: LAPURDIKO KOSTALDEA

Donostiatik irtengo gara eta A-8 autopista hartuko dugu Irán-Frantzi norabidean. Bidasoa ibaia zeharkatu ondoren lehendabiziko herria Hendaia da eta geroago Urruñá pasako dugu. Donibane Lohizuneko Hegora joateko 2. irteera hartu beharko dugu. Kontxako badia baino handiagoa den badia ikusgarri honetan bi ibaia itsasoratzen dira. Beraz, hiiru herri polit bisita ditzakegu: **Donibane Lohizune**, **Ziburu** eta **Zokoa**. **Donibane Lohizune** herri bitxia da eta karma berezia gordetzen du: euskal estiloko exte koloretsuak, kale estu eta txikiak eta baita oinezkoentzako gunea denda, terraza eta tabernaz beterikoa. Ziburun, (**D-912**) Maurice Rabel euskal konposatzaile ospetsuaren jaiotetxea aurki dezakegu gaur egun bertako turismo bulegoan bihurtua.

Zokoaraino hondartza eta kosta aldetik jarraitzen duen bidea artesa gomendatzen dizuegu biziki (**D-912**). Errepide honetan itsaslabar ikusgarriak sortzen dira **Hendaia**ko hondartzara iritsi artean. Hendaia sartu baino lehen Anton Abadiakoaren gaztelua bisita dezakezue. Anton Abadiakoa euskal kultura eta hizkuntzaren defendatzaile sutua izan zen.

Hondarribiara igarotzeko Bidasoa ibaia zeharkatu beharra dago. Hondarribiko alde zaharra harreres inguraturik dago eta bertan monumnetu interesgarriak aurki ditzakegu. Alde zaharreña aipagarriak dira: Parroki Eliza, Nafarroako erregeak fundaturiko jauregia gaur egun Paradore bihurtua dena, Armen Plaza, Gipuzkoa Enparantza eta erdi aroan harriz eta egurrez eraikitako etxeak. Ikus itzazue etxe hauetako fatxadak, tailatutako teilatuak, harmaurriak eta burnizko balkoiak. Beheko tizas partean Marina auzoa bisita dezakezue. Arrantzaleentzat eginiko kolorinetako etxeak eta hainbat eta hainbat jatetxe, taberna eta terraza dauzkagu nahi adina pintxo jateko.

(**GI-3440**) errepidea hartu eta Hondarribiatik **Jaizkibel mendira** igotzea gomendatzen dizuegu. Jaizkibeleetik kostaldeko eta barnealdeko paisaiaren ikusmira panoramiko zabal eta zoragarria daukazue. Bertan Guadalupeko Ama Birjinaren eliza eta **Guadalupeko Gotorlekua** bisita ditzakezue. Errepidea jarraituz euskal kostaldeko fiordo bakarrera iritsiko zarete: **Pasaia**.



3 Txangoa: BAIONA - MIARRITZE

Donostiatik irtengo gara eta A-8 autopista hartuko dugu Irán-Frantzi norabidean. Bidasoa ibaia zeharkatu ondoren lehendabiziko herria Hendaia da eta geroago Urruñáko irteera hartuko dugu Azkainera abiatzeko. **Azkaine** eta **Sara** herrisen artean (**D4**) San Inazio Gaina aurkitzen da eta honen ondoren **Larrungo Tren Ttipiaren** geltokia. Martxoaren erdialdetik azaroarte aukera aparta duzue Larrungo Tren Ttipian gora eta behera ibiltzeko. **Larrungo gailurrak**, 905 metro, berebiziko ikuspegi hederá eskeintzejn digu gure begietara. 360º graduko horizontea daukagu bertan. Pirineo mendilerroko gailurrak bereiz daitezke egun garbiarekin eta noski nola ez euakl kostaldea Donostiatik pasatuz Hondarribia, Donibane Lohizune, Miarritze eta Landateraino.

Txangoa Sara herria bisitatuz jarrai dezakegu. Sarak turistentzat aukera aunitz eskaintzen ditu. Saratik gertu **Ainhoa**, **Ezpeleta** edo **Kanbo** herri ederrak bisita ditzakezue. Kanbon, Arnaga Etxea aurkitzen da, “Bergeraceko Zirano” idatzi zuen Eduard Rostand idazlearen etxea museo bihurtua dago. Bainuetxe famatuak ditugu Kanbon ere. Herriska hauek ingurune zoragarrian kokatzen dira eta guztiak dira xarmangarriak.

Honaino iritsita bi aukera dituzue: bata **Baiona** hiriburua eta **Miarritze** bisitatzea joatea (**D-932**) errepidea hartuz eta bestea Batzan Bailara ikusgarria zeharkatzea **Elizondora** arte (**121-B**) errepidea hartuz. Baiona Lapurdiko hiriburu administratiboa da eta bi ibaiek gurutzatzen dute, Atturrik eta Errobik. Zentruko kalleetan salerosketa cunea eta erdi aroko kutsua duten kaleak nabarmentzen dira. Museorik garrantzitsuenak bi dira: **Euskal Museoa** eta **Bonat Museoa**. Baiona utziz gero (**N-10**) errepidetik Miarritzeko hondartza aldera iritsiko zarete. Miarritze da kostalde honetako izarra eta urteetan erregeen hondartza eta hondartzen erregina izatearen ospea izan du. Gaur egun edertasuna, dotoretasuna eta prestigioa mantentzen ditu.



Beste aukera **Batzan Bailerara** zuzentzea eta **Elizondo** bisitatzea da. Ibilbidea motzagoa egin nahi izanez gero **Zugarramurdi** eta **Etxalar**, **Donamaria**, **Doneztebe** aldera jo dezakegu ondoren **Lesaka** eta **Beratik** pasatuz (**N-121**) errepidetik.

4 TXANGOA: ZARAUTZ – GETAIA - ZUMAIA

Zarautz 15-20 minututan iristeko (A-8) autopista har dezakegu edota bestela kostako errepidea (N-634) Usurbil, Aginaga eta Orio gurutzatuz. Zarautz lautada zabal batean kokatzen da eta itsasoari begira dago. Zerbitzutarako herri erakargarria, modernoa eta turistikoa da. Gipuzkoako kostaldeko hondartzarik luzeena du eta urte osoan zehar surfa praktikatzeko gogotik.

Costadle ibilbide panoramikoa jarraituz (N-634) Getariara helduko gara. Getaria Arrantzaleen herri ospetsua, Juan Sebastian Elkano itsasgizonaren jaioterria da eta bera izan zen itsas historiako abenturarik fantastikoenaren protagonista nagusia: itsaso eta ozeanoak zeharkatuz munduari bira eman zion lehendabiziko aldiz. Getarian ahaztu gabe egin beharreko gauzak hauek dira: 1. Alde zaharra bisitatu, kolorez beteriko etxe tradizionalak, balkoiz jositako fatxadak ikusi eta kale estu eta garbiaren zehar pasiatu. 2. Erreboilo, bixigu edota zapo eder bat jan eta txakolina edan portuan. 3. Hondartzaz eta Getariako Xaguaren (San Anton parkea) inguruneaz gozatu. 4. Mundu osoan zehar txit ezaguna izan zen **Kristobal Balentziaga** jostunaren museoa bisitatu.



Getariatik Zumaia jo dezakegu. Zumaiaiko sarreran Inazio Zuloaga margolari ospetsuaren museoa eta Laia Museoa bisita ditzakezue. Zumaian Izurun eta Santiago hondartzak aurkituko dituzu, erabat desberdinak biak. Santiago hondartzak duna txiki batzuk aduzka eta Erico sarrean dago. Izurun, berriz, herriaren bestaldean, yodo maila handiko hondartza ospetsua da eta osasunarentzat ezaugarri onak omen ditu.

(N-634) errepidea jarraituz Debaraino iritsiko zarete. Kaliza harrizko ingurune bitxi honetan oso aipagarria da **Ekaingo Kobazuloa** (1969): labar-pintura eta aintzinako gizonen arteari dagokionez munduko bost onenarikoen artean aurkitzen den kobazuloa da.

Deba igaro ondoren kostako errepideak Mutrikura eramango gaita. Mutriku arrantzaleen herri tipikoa da eta antxoa kontserbetan ospe handia du. Mutrikuko portuaren ameneran itsasoko piscina natural eta bitxia aurkituko duzue, aukera ezin hobea bainu eder bat hartzeko. Mutrikun badira ondo seinalizaturiko mendi ibiliera oso interesgarriak.

Txangoa nahi adina luza dezakezu kostan barrena. Mutriku ondoren Lekeitiora abia gaitzeko eta baita Urdaibaiko Erreserba Naturala bisitatu ere. Bertan Ea, Elantxobe, Bermeo, Mundaka... pasako ditugu. Txangoa bukatzeko Donostiara itzul gaitzeko (A-8) autopistatik.



5 Txangoa: HERNIO – ERREZIL BAILARA

Donostiatik irtengo gara (N-1) errepidea hartuaz Tolosaraino. Tolosako hirugarren eta azkeneko irteeran atera eta (GI-2634) errepidea hartuaz Azpeitiaruntz zuzenduko gara. Albiztur herria pasatuaz igoera eder bat daukagu Bidaniako Gaina hartu arte. **Bidaniako Gainatik** metro gutxitara freskagarri bat hartzeko aukera ona dugu Trintxera jatetxeko terraza neta bide batez Errezilgo bailarako bista zoragarriez disfrutatzeko aprobetxa dezakegu. Eskubialdera Hernioko mazizoaren gailurra ikusiko duzue eta zuen begietara, berriz, bailara berde eta sakona, zelaiak eta sakabanatutako baserri eta basoak ikusiko ditugu. Bailaren urrunean ikusiko duzuen Errezil herria da.

Errepidea jarraituz gero Azpeitiara iritsiko zarete, bertan **San Inazio Loiolakoaren Basilika** aurkituko duzue, zeina Jesusen Konpainiaren (Jesuiten) fundatzailea izan zen. Loiolako Santuarioan bisita gidatua egiteko aukera baduzue. Azpeitian Trenaren Euskal Museoa ere bisita dezakezue eta 20 minutuko irteera dibertigarriaz goza dezakezue aintzinako tren-makina batean.



Azpeitiatik Urola bailara gurutzatu eta Zestoara iritsiko gara. Zestoako bisitadirik ahaztezin eta garrantzitsua Ekaingo Kobazuloa ikustea izango da. **Ekaingo Kobazuloa** (1969) (**Aurretiko zita: 943.868.811**) labar-pintura eta aintzinako gizonen arteari dagokionez munduko bost onenarikoen artean aurkitzen den kobazuloa da. Txangoa amaitzeko Donostiara itzuliko gara (A-8) autopistatik.

6 Txangoa: TXINDOKI MENDIA- ORDIZIA

Donostiatik irtengo gara (N-1) errepidetik Tolosaraino (20 minutu). Alegiako irteera hartuko dugu (GI-2133) errepidea jarraituz.

Alegiatik Amezketara Joao dugu Larrunharri mendira (1.000 m) piskanaka gerturatzeko. Ingurune hau 1994 urtean Erreserba Naturala izendatu zuten eta 10.956 Ha-ko zabalera du. Hainbat eta hainbat monumento megalitiko, dozenaka ermita eta kobazulo eta mitologikoki garrantis handia duten gune asko aurki daitezke bertan.

Amezketatik aurrera, gorantz doan errepidea hartuko dugu zeinak bista panoramiko itzela eskeintzen duen Abaltzisketa herrira iritsi arte. Abaltzisketa herritik Larrunharri mendia bere osotasunean ikus dezakezue eta baita inguruko bazter guztiak ere.

Abaltzisketatik beste igoera motz bat jarraitu eta Larraitzko gunera iritsiko gara, Larrunharri (Txindoki) mendiaren magalean bertan. Larraitzetik aurrera jarrai dezakegu beherantz Zaldibia lehenik eta Ordiziara ondoren. Ordiziako alde zaharra eta historikoa kale estuz osaturiko nukleoa da eta Monumento Historiko izendatua dago. Baina Ordiziako atrakziorik garrantzitsuenak **bertako produktuen azoka** da. Azoka honek XI. eta XII. Mendeetan du bere sorrera eta urteko ASTEAZKEN oro antolatzen da.

Gure ibilbidea (N-1) errepidea hartuaz jarraituko dugu Idiazabal izeneko herrira heldu arte. Euskal Herrian artzantza aktibitate garrantzitsua izan da urteetan eta horregatik gazta asko produzitu da. Beraz, gazta, Euskal Herriko produkturik adierazgarrienetakoa da. "Idiazabalgo Gaztak" jatorri-izendapena du eta nazioartean ospe handiko gazta bihurtu da. Arrazoi honengatik Idiazabalen Artzaiaren Monumentua eta Idiazabalgo Gaztaren Museoa aurkituko ditugu.

7 Txangoa: PAGOETAKO PARKE NATURALA

Pagoetako Parke Naturala Aia herrian kokatzen da (GI-2631) errepidean kostatik oso gertu, Orio eta Zarautzik kilometro gutxitara. Parkeak interesgarri diren hainbat aukera eskeintzen ditu. Horien artean bi dira azpimarratu beharrekoak: 1. Agorregiko Burdinola eta Errotak eta 2. Iturrran baserria, bertan parkeko interpretazio zentrua izateaz gain milaka espezie autóctono eta exótico dituen Lorategi Botaniko zoragarria bait daukaze.

Aiatik nahi izanez gero **Iturriotzko Bentara** hurbil zaitezke Hernio mendira (1.072 m) igoera egiteko eta ondoren Asteasutik barna (N-1) errepidetik Donostiara itzul zaitezke.

